

3. PRAKTIKA

Praktikaren izenburua: artikulu bati buruzko gogoeta

Praktika mota: gogoeta-jarduera

Irakurri testu hau: Ruiz de Gauna, P. (1996). Teoriak eta praktikak irakasleen etengabeko prestakuntzan. *Tantak aldizkaria*, 15, 97-112.

Jarraian, zure gogoeta egiteko, erabili azpian dituzun galderak gida gisa:

- Artikuluan agertzen diren hiru ideia aukeratu. Zergatik aukeratu dituzu?
- Zer ideia, errealitate eta esperientziarekin lotu duzu artikuluan esaten dena? Zergatik?
- Lanbideko kide bati gomendatuko zenioke artikulu hau? Zergatik?
- Bakoitzak sartu nahi dituen ekarpenak

ERANTZUNA

Jarraian ematen den erantzuna orientagarria baino ez da. Ez dago erantzun bakarra

Pilar Ruiz De Gaunak idatzitako testu honen bidez, azken urteetan hezkuntzan egindako ibilbidea erreparasatu dut. Irakasle zein ikasle rolean izandako bizipenekin lotu ditut prestakuntza ereduak eta bakoitzaren atzean dauden oinarriak eta interesak.

Interes teknikoa gidaturiko irakasleen prestakuntza

Lehen puntua irakurtzean, institutuko bizipenak etorri zaizkit burura. Testu liburu lodiak eta euren gaiaz asko zekiten baina irakasle eredu garritzat sekula izan ez ditudan irakasleak. Lehen unetik, argi uzten ziguten zein emaitza lortu behar genituen izan nahi genuena izateko eta ondoren, zenbat gai ikasi behar genituen, zein orrialdetik zein orrialdera. Testuan dioen bezala, emaitzak ziren helburu, edukiak barneratuz. Irakaslearen rola jakintza iturri absolutuarena da eredu honetan, beraz, aditua izan behar du irakatsi behar duen ikasgaiari eta ikasleek, jakintza hori jaso baino ez dute egin behar. Irakasle → ikasle harremanak noranzko hau izango duelarik, geziak adierazten duena. Ideia honekin bat, ikasgelen argazkiak datozkit burura, guztiak bikoteka eserita, aurrera begira eta aurrean irakaslearen mahaia eta arbela, baina ikasleak baino koska bat gorago. Argiago ezin esan nork entzun behar zuen nor.

Irakasleen prestakuntzari eutsiz, eredu honetan irakasteko gaitasuna garatzea izan da xedea. Horretarako, irakasle idealen nortasunean berezkoak behar duten gaitasunak bultzatu, irakaskuntza eraginkorra izateko jokabide eta trebetasunak garatzen lagundu eta azkenik, jakingaiak transmititzeko teknika eta curriculum-materialak hobetzeko ahalegina egiten da. Adibidez, IKT-en erabilera bultzatzeko ahaleginak egiten ari ziren lanean egon nintzen ikastetxe batean, ustez, eredu berritzaile eta eraldatzailea zen, baina ez ziren ohartzen zaharkitutako metodoak bultzatzen jarraitzen zutela. Hau da, curriculum-materiala hobetzen saiatzen ziren, irakasleak trebatzen, baina, irakaskuntzak lehengo lekuan jarraitzen zuen. Liburuak digitalak izanagatik, etengabe bakarkako lanak edo test bidezko teoriako ebaluazioak bultzatzen baditugu ez dago aldaketarik. Berrikuntza hauek aurrera emateko, irakasleei zuzendurik ikastaroak erabiltzen dira, normalean, adituek diseinaturiko ikasgaiak martxan jartzeko behar dituzten materialak, tresnak, programak aurkeztu eta nola erabili irakasten zaie. Azken finean, ez da zein ikasle dituzun edo zein testuingurutan lan egingo duzun kontuan hartzen, irakastea soilik da garrantzitsua.

Interes praktikoak gidaturiko irakasleen prestakuntza

Testuan irakurritako ideien arabera, egon naizen ikastetxeetan une honetan hedatuen dagoen fokapena iruditzen zait. Hezkuntzako azken dekretuek bultzatzen dituzten metodologiak hemen kokatuko nituzke.

Pertsona talde bat testuinguru eta egoera jakin batzuen eraginez nola dabilen ulertu eta deskribatzea izaten dute helburu, ondoren irakaskuntza diseinatzeko. Eta hau non topatu dezakegu? Ikastetxeko dokumentu ezberdinetan (Curriculum Proiektua, Hizkuntza Proiektua, ikasgelako unitate didaktikoak...). **Hauek sortzerakoan, testuinguruari** buruzko informazioa eskatzen zaigu, ikasleak, ikasgelak, eta ingurua nolakoa den garrantzitsua da, ondoren datorrena diseinatzeko. Zergatik? Irakaskuntza elkarrekintza gisa ulertzen delako. Prestakuntzaren atalari helduta, korrante ezberdinen joera nabarmena da eta aipatzen diren hiru orientabideak erraz aurki daitezke egungo irakasleen formazio saioetan. Korrante humanista, irakasleen pentsaera eta azkenik, ikerkuntza ekintza aipatzen ditu testuak. Honen harira, hezkuntza emozionala, irakaskuntza kooperatiboari buruzko ikastaro eta hobekuntza proiektuek azken urteetan hartu duten indarra azpimarratuko nuke. Testuan aipatzen diren ildoak horrekin lotu ditut, azken finean, irakaslearen rola gainera lanketa handia egiten ari dela esango nuke. Era berean, ikasleen gaitasunak azaleratzeko beharrez ere ohartzen ari dira eta horretarako metodologia aktiboetan oinarritutako ikastaroen bidezko formazioa hedatzen ari da. Besteak beste, hezkidetzaren planak edo bizikidetzaren inguruan *Prest Garak* antolatutako azken ikastaroen halako metodoak zituzten. Ikastetxean sortu beharreko proiektua, pentsatu, antolatu eta martxan jartzen laguntzen zuten. Ondoren, jarraipena egitea, ebaluatzea eta hobekuntzak proposatzea lortu nahi da.

Ikerkuntza ekintza ere ageri da testuan, nik hau ikastetxeetan baino unibertsitatean ezagutu dut. Baina, egia da etorkizuna ikastetxe zein unibertsitateen arteko elkarlanean ikusten dudala, esaterako, irakasle-ikertzaile elkarlanak formaziorako aukera ezin hobeak eskaintzen dituela iruditzen zait.

Interes kritikoak gidaturiko irakasleen prestakuntza

Aitortu behar dut azken ikasturtera arte errealitate biko bako utopiatik gertuago ikusten nuela joera hau, baina, egon naizen azken ikastetxean nire ikuspegia aldatu da. Proiektuak erabiliz lan egiten urte mordoa zeramatzen ikastetxe batean egon naiz, adierazgarria zen ez zekitelako teoriaren bidez justifikatzen zergatik egiten zuten lan modu horretan, baina, helburua oso argi zuten: ikasleek beren kezketatik abiatuz sortuko zituzten eskola komunitatearen eraldaketa ekarriko zuten proiektuak. Beraz, interes kritikoak bezalaxe euren jardunak eraldaketa du ardatz eta gizartea hobetzea helburu. Gizartea diodanean izan daiteke auzoa, herria edo ikasgela bera.

Ikasleen papera aktiboa zen, beraien galdera batetik gaia abiatzen zen eta ondorengo erabakiak ere euren esku zeuden. Irakasleak berriz, etengabe ikertzen aritu behar zuen, aurreikusten, diseinatzen... Irakaskuntza, egonezinak asetzeko aurkikuntza prozesu gisa definitzen da testuan eta nik halako zerbait sentitzen nuen ikastetxe honetan.

Irakasleen formazioan berriz, hutsuneak nabari nituen. Adibidez, ordezkioak iristen ginenean bakoitzaren gaitasun, ezagutza-maila eta kemenaren araberakoa zen proiektuak lan egiten jarraitzea edo ez. Koordinatzaileak laguntzen zintuen kokatzen baina formazio falta nabaria zen. Artikuluan aipatzen da, metodo nagusia ikerkuntza ekintza kritikoa dela, hau da, ulermenetik haratago joanez, gizartea, gizabanakoa edo taldea eraldatu eta hobetzea helburu duen ikerketa prozesua. Elkarriketa eta eztabaiden garrantzia azpimarratzen da eta agian, hemen genuen hutsunea. Askotan aipatzen genuen hausnarketarako edo eztabaidarako denbora falta genuela, erabaki asko ia klasean bertan hartu behar genituela edo beste ezagutza batzuk dituen norbaitekin partekatze beharra genuela. Halaxe dio testuak, egiteko hauek ez direla ikasgelan soilik mugatu behar, komunitate kritikoak eratu eta hauen bidez esparru zabalagoetara iristek ikuspegia zabaltzen laguntzen duela.

Bertan dagoela gakoa esango nuke, azken finean, ikastetxea komunitate baten parte da eta beste kideengandik asko ikasi behar dugu.

Amaitu aurretik aipatzekoa

Amaitzeko, hezkuntza munduan eta bereziki irakaskuntzan dabilen edonori gomendatuko niokeela esku artean dudan testu hau esan nahiko nuke. Mardula izan arren, geure egunerokoari hain lotuta egoteak irakurterrazagoa bilakatzen du eta norbere lanaren gaineko auto-ebaluazio moduko bat egiteko parada ematen digu. Hasierako paragrafoetan aipatzen den moduan, geure esku hartzeak arakatu eta gure kontraesanez kontzienteago egiteko bideak zabaltzen dizkigu. Honela, gure jardunaren mugak zein indar-guneak ezagutu eta hobetzera bultzatzen gaitu. Beraz, atsegina eta interesgarria izan da deskubritzea zer nolako interesen zerbitzuan dagoen gure hezkuntza praktika.